



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Carlos Sarduy tronpetista eta konpositoreak *Groove messengers* proiektua aurkeztuko du «BJC Arriagan» zikloan

- Musikari ospetsua, nazioarteko artista handien kolaboratzailea eta sari garrantzitsuen jabea (Grammy bat eta Latin Grammy bi), laukote formatuan iritsiko da Bilbora datorren asteartean, azaroaren 7an.

Bilbo, 2023ko azaroaren 3an.- Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak sustatutako «BJC Arriagan» zikloa berriz ere taula gainera dator datorren asteartean, hilak 7. **Carlos Sarduy** tronpetista, perkusionista, pianista eta konpositore kubatarra *Groove messengers* izeneko bere proiektuarekin etorriko da gurera, laukote formatuan. Emanaldia 19:30ean hasiko da.

Habanan jaioa, Carlos Sarduy 4 urterekin hasi zen tronpeta jotzen. Izan ere, haurtzaro berezi eta paregabea izan zuen, oso goiz hasi baitzen musikari gisa garatzen. Bere soinuagatik, musikaltasun handiagatik eta moldakortasun musikal apartagatik goraiatu ohi dute. Bere konposizioetan kaleetako tradizio afrokubatarraren eragina antzematen da, baita Jazzaren nazioarteko eszenarena ere.

Kubako, Amerikako eta Afrikako tradizioetako maisuetan inspiratuz, Sarduyk soinu propio bat garatu du, zeinak jazzaren eszenan erreferentzia bihurtu baitu, eta flamenkoan, Kubako musika herrikoian eta musika modernoan ere sartu-irtenak egin izan baititu. GRAMMY saria jaso zuen Chucho Valdésekin batera Irakére 40-rengatik eta bi LATIN GRAMMY irabazi ditu. 50 disko baino gehiago grabatu ditu —horietako asko diskoetxe ospetsuentzat— eta artista handiekin aritu da elkarlanean, hala nola Chucho Valdés, Bebo Valdés, Steve Coleman, David Murray, Esperanza Spalding, Buika, Ainhoa Arteta, Mariza eta Ojos de Brujo-rekin.

Musikari bikainak

Kongak ere joko dituen Carlos Sarduyk gidatutako laukotean laguntzaile dituen musikariak primerakoak dira: Rolando Luna (pianoa eta teklak), Yarel Hernández (baxu elektrikoa) eta Rodney Barreto (bateria).

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 21 euro
- Dagoeneko salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus